


B

BARREN



**“*Extremoduroren*
abesti bat entzuten
erabaki nuen
antzezle izatea”**

Asier Etxaniz, antzezlea


ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

**Gida komertziala prestatzen ari gara,
zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu,
deitu zenbaki honetara:**

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

BARREN

Elgoibar eta Berna

1979ko abuztua zen bi senar-emaztek geure seme-alabekin oporrak Suitzan igarotzea erabaki genuenean. Gure camping dendekin astebete ahaztezin bat pasatu genuen Genevako campingean. Handik, hiribururantz jarraitzea erabaki genuen, Bernarantz, eta han Aar ibai (Rhinen ibaiadarra) ondoko campingean gelditzea. Bila ari ginela, hiriguneko parke txiki batera iritsi ginen, ibai ertzean zehar oinezkoentzako ibilbide bat hasten zen parke batera. Ibilbide hori campingean bertan amaitzen zen.

Campingerako sarrera handik kilometro batzuetara zegoen, ibilbide hori nolakoa zen ikusi eta campingaren beraren ezaugarriak zeintzuk ziren azertzea erabaki genuen.

Ibilbide hura zabaldu berri duten Elgoibar eta Maltzagaren artekoaren antzekoa zen luzeran, eta baita baldintzetan ere. Hala gogoratzen dut nik behintzat. Esan beharrik ez dago ikaragarri gustatu zitzaigula, eta ondorioz campingean gelditzea erabaki genuela. Hala, Bernan igaro genituen lau egunetan, ibilbide hori erabili genuen hiriburura bisitan joan ginen aldiro, autoa hartu beharrik izan gabe.

Orduan, etsita, Elgoibarren haren moduko ibilbide bat izatea eta Deba ibaia hangoa bezain garbi egotea zein ona eta, aldi berean, zein zaila izango litzatekeen pentsatzen jarri nintzen. Eta hara non, 30 urte geroago, gure instituzioek eta agintariek errealitate egin duten orduko amets hura.

Berna Suitzako hiriburua da, eta Elgoibar, gure herrialdeko erreminta makinarena. Bernak bezala, Elgoibarrek ibilbide ederra du orain ibai dotore eta nahikoa garbi baten hegalean (depuradora izan arren, oraindik ez gara suitzarrak bezain garbiak, baina iritsiko da hori ere). Elgoibartarrok eta bisitan etortzen zaizkigunek ederki goza dezakegu orain bide hori.

Jesus Mari Bilbao



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Bernak bezala, Elgoibarrek ibilbide ederra du orain ibai dotore eta nahikoa garbi baten hegalean”

**GOTZON
GARATEREN
herri-omenaldiko
BIDEOA
jarri dugu!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

**ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**



“Ilusioak
edukitzea
ondo dago,
baina hankak
beti lurrean
izan behar dira”

ASIER ETXANIZ

ANTZETZLEA

Asier Etxaniz elgoibartarrak 27 urte ditu. Erreminta makinaren hiriburuan jaio arren, ez du bere burua alor horretan ikusten, eta orain dela urte batzuk, antzerkiaren munduan barneratzea erabaki zuen. Arte Dramatikoa ikasi zuen, eta aktore lanetan dihardu gaur egun. Malagan bizi da, bere bikotekidearekin, eta epe laburrean martxan jartzeko hainbat proiektu dauzka eskuartean.

Elkarrizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Elgoibartik Malagara. Zer dela eta hartu zenuen erabaki hori?

Lau urtez Arte Dramatikoa ikasten jardun nuen, eta ondoren, bi urte eta erdi ibili nintzen Deabru Beltzak antzerki taldean. Ez zen, baina, nik nahi nuen antzerki taldea. Oso antzerki mugatua da, eta ez ninduen erabat betetzen. Bi urte nahikoa izan dira. Askok ikasi dut, eta asko bidaiatu dugu, baina antzezle bezala, paper dramatikoak egitea ere nahi nuen. Gainera, nire neskalaguna andaluziarra da, eta Malagan egiten du lan. Berarekin joatea erabaki nuen. Deabru Beltzak laga nuen, baina ez antzerkia.

Malagan ere antzerki munduan barnertzen saiatu zinen?

Bai. Antzerki talde profesionalen bila jardun nuen, baina ez daude asko Malagan. Hila-bete pasa aritu nintzen curriculumak bidaltzen konpainia horietara, baina ez nuen erantzunik jaso. Horrelako taldeetan sartzeko *casting* asko egin behar izaten dira, eta emaitza oso gutxi jasotzen dira. Orduan, alde batera laga nuen ideia hori, eta neure proiektuak lantzen hasi nintzen. Baina lana behar nuen, eta zerbitzari lanetan hasi nintzen taberna batean. Orain sukaldari lanetan nabil.

'La Invisible' izeneko mugimendu okupa batean ere bazabiltza.

Bai. Orain dela bi urte, sortzaile talde batek Malagako eraikin bat okupatu zuen. Gazte-xearen filosofia dauka, Euskal Herrian Gaztetxe bat izango litzateke hau, dudarik gabe. Sortzaile horiek behar batzuk dituzte, izan ere, Malagako kulturak bi adar besterik ez ditu lantzen: turismoa eta Picasso. Dena dago Picassori lotuta, edo bestela

zezenketak dira protagonista. Sortzaile horiek zituzten beharrei erantzuteko 'Creadores Invisibles' mugimendua sortu zuten. Inork ez ditu ikusten, horregatik jarri zioten *invisible* izena. Lau solairuko eraikina da, eta denetik dago bertan: musika kontzertuak eskaintzeko eszenatokia, ikastaroak egiteko lekuak... Argi ikusi nuen hor sartu behar nuela. 'La Invisible Band' izeneko musika taldean sartu nintzen. Jende oso ona dago, eta hainbat proiektu sortu ditugu: jazz tailerra, swing, bosanova... Bestalde, bakarrizketa bat prestatzen ari naiz.

“Deabru Beltzak taldearekin Elgoibarren antzeztea oso berezia izan zen”

Antzerkitik bizitzea zaila da?

Oso gogorra da. Jende oso ona dago eta denetik egiten jakin behar da. Ilusioak edukitzea ondo dago, baina hankak beti lurrean eduki behar dira. Satisfazioak ematen ditu antzerkiak, baina lan handia egin behar da. Deabru Beltzak taldearekin asko bidaiatu nuen. Bogotan (Kolonbia), esate baterako, 8.000 pertsonen aurrean antzeztu genuen, eta horrek ez dauka preziorik. Momentu horretan barruan sentitzen dena ezin da hitzekin deskribatu. Mexikon ere

ibili nintzen, Zacatecas inguruan, eta Europan ere bai: Alemania, Herbehereak, Frantzia, Ingalaterra... Kultura diferenteak ezagutzeko aukera izan dut.

Publikoa asko aldatzen da herrialdeen arabera?

Bai. Askotan herri batetik bestera igartzen da diferentzia. Ingalaterran publiko hotza espero nuen, eta harrিতa geratu nintzen. Ingalaterran antzerkia oso garrantzitsua da, eta publiko oso onarekin egin genuen topo. Nik ezagutu dudaren arabera, Euskal Herrian eta Espainian oso atzeratuta gaude antzerkiari dagokionean. Publikorik hotzetakoa Euskal Herrian aurkitu genuen Deabru Beltzak taldearekin.

Elgoibarren ere izan zinen sanbartolomeetan. Zer sentitu zenuen?

Oso berezia izan zen Elgoibarren antzeztea. Nire herria zen, baina egun hartan kanpotik nentorren. Taldekoei esaten nien jende gutxi etorriko zela gu ikustera, Elgoibarren ez dagoela kale antzerkia ikusteko ohiturarik, eta gainera, Jubilatuen Egunean antzezten genuen. Baina dantza solteko txapelketaren ondoren, badirudi jendea kalean gelditu zela, eta Plaza Handia betetzen hasi zen. Antzeztera irten ginenean, Plaza jendez gainezka zegoen, eta kaleetan barrera ere jende mordo batek jarraitu ginetuen. Sekulako arrakasta izan genuen. Gainera, nik jende guztia ezagutzen nuen, baina ni ez ninduen inork ezagutzen. Jende horren aurpegitik hamar zentimetrora egon nintzen, eta ez zekiten nor nintzen! Eta gainera, ondo pasatzen ari zirela ikusten nuen! Ikaragarria izan zen. Sentsazio oso arraroa izan zen, baina sekulakoa!



Eszerrean, Asier Etxaniz. Erdiko erretratuan aker jantzita ageri da Asier, eta eskuman Olentzeroren paperean.



“Seguruenik sukaldari lana lagako dut, eta neure obrak prestatzeari ekingo diot buru-belarri”

jarduten genuen. Behin, lagun batek antzerkia egin beharko nukeela esan zidan, baina nik pikutara bidali nuen. Niretzako antzerkia Lina Morgan eta Arturo Fernandez ziren, eta ez zitzaidan gustatzen. Baina pentsatzen hasi nintzen, eta akordatu nintzen txikitari beti zigortzen nindutela tontokeriak egiteagatik. Pailazo bat nintzen umetan. Behin, etxean nengoen porro bat erretzen, eta Extremoduro taldearen abesti bat entzun nuen: “*Ama y ensancha el alma. De pequeño me educaron para hombre adinerado, pero ahora prefiero ser un indio que un importante abogado. Hay que dejar el camino social alquitrinado...*”. Neure buruari esan nion, berriz jaio behar nuela. Ingeniaritza lagatzea eta Arte Dramatikoa ikastea erabaki nuen.

Non egin dituzu ikasketak?

Madrilgo Arte Dramatiko Eskolan sartzen ahalegindu nintzen, baina sarrera probak oso gogorak izan ziren. Antzerki munduko galdera asko zeuden, eta apur bat ikasi nuen arren, ez nekien ezer. Amak irratian entzun zuen Getxon antzerki eskola bat zegoela, eta probak egitera joan nintzen. Oso gaizki ateratzen zidana dena, baina zergatik nahi nuen antzezle izan galdetu zidatenean, konbentzitu egin nituen. Laugarren mailan nengoela Deabru Beltzak taldekoekin egin nuen *castinga* eta hartu egin ninduten.

Batzuk Madrilerara joaten dira arrakasta bila, eta zu Malagara.

Ni ez nintzateke Madrilerara joango, eta nire lagun guztiei esaten diet ez joateko. Madril jungla basati bat da, eta hara ezin da probatzen joan. Madrilerara oso seguru joan behar da, jendearen gainetik pasatzera eta nahi duzun hori lortzera. Suerte bila bazoaz, jan egiten zaituzte. Azkenean, jende askok ilusioa galtzen du eta lanbide honetan ilusioa ezinbestekoa da.

Zu izan zara noizbait Madrilen?

Bai, *casting* bat egitera joan nintzen behin Madrilerara. Jose Pedro Carrión etorri zen Arte Dramatiko eskolara; antzerki munduan oso pertsona inportantea da. Cirano de Bergerac antzezlanarekin prestatzen ari zen, eta Madrilerara joateko esan zidan, John Stransberg zuzen-

dariaren aurrean proba egitera. Robert de Niro edo Harvey Keitel bezalako aktoreekin lan egin du zuzendari horrek, eta niretzako sekulako aukera zen. *Casting* itxia zen, eta Espainia guztitik 50 aktore joan ginen, bederatzi pertsonaia antzezteko. Bakarrizketa bat eta Sevillako Don Juan pertsonaiaren papera egin behar nituen eszena batean. Don Juan maiteminduta dago eta neska horren aita hiltzen du. Orduan aitaren mamua agertzen zaio, eta beldurra pasatzen du. Paper hori egiteko, nire gorputzak beldurra pasatzen ikasi behar zuen. Bilbon bizi nintzenean, Artxandako bunkerretara joan nintzen gau batean lagun batekin. Kandela bat eta laban bat nituen eskuetan. 45 minutu egon nintzen han barruan, beldurtuta, obrako testua esaten. Lagunari esan nion 45 minutu pasata ez banintzen irteten, deitzeko. *Castinga* baino bi egun lehenago, oraindik ez nengoen proba egiteko guztiz prestatuta, eta zeozer egin behar nuen. Zapatu gau batean mozkortu egin nintzen Elgoibarren, eta Olasoko hilerrira joan nintzen, goizeko 2:30ak aldean. Atea gainetik pasatu, eta hantxe egon nintzen. Benetako beldurra sentitu nuen, baina nire gorputza kontrolatzen ikasi nuen. Azkenean ez ninduten hartu, baina sekulako esperientzia izan zen.

Aurrera begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Seguruenik sukaldari lana lagako dut, eta neure obrak prestatzeari ekingo diot buru-belarri. Bikotearekin hitz egin dut, eta bere babes guztia daukat. Berak ez dauka mundu honekin zerikusirik, anestesista da. Bera Andaluziarra da, eta ni euskalduna; bera medikua eta ni antzezlea. Arraroa izan daiteke gure harremana, baina berak dioen moduan, bera gorputzeko medikua da, eta ni arimarena. Bere babesa edukitzea oso garrantzitsua da niretzat. Aurrera begira, bakarrizketa, umeentzako obra bat eta nagusientzako beste lan bat ditut eskuartean. Lan horiek idatzi eta zuzentzea gustatuko litzaidake. Obra bakoitzak dituen beharren arabera osatuko dut taldea.

Nondik datorkizu antzerkirako zaletasuna?

Egia esan, umetan sekula ez dut esan aktorea edo antzezlea izan nahi dudarik. IMHn egin nuen goi mailako modulu bat, eta ondoren Goratu enpresan egin nituen praktikak, baina enpresa mundua ez zitzaidan gustatu. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen ondoren, eta bitartean, zerbitzari moduan egiten nuen lan tabernan. Askotan, Karobi tabernan txisteak kontatzen hasten nintzen, eta denok barrez



Trenbideko lanak gauzez egiten dituzte as-

kotan: “Euskotren enpresakoek gauzez lan egiteko baimena edukiko dute seguruenik, baina, nire ustez, ez dago horretarako esku-biderik. Trenbidean hobekuntzaren bat egiten duten bakoitzean, inguruko bizilagunok ezin izaten dugu lorrik egin. Egunez ere egin daitezke lanak, eta, beharrezkoa bada, autobusekin eman daiteke zerbitzua. Udalak zerbaitekin egin beharko luke herriko bizilagunen onerako, hurrengo egunean askok kotxea hartu behar izaten baitugu, ia lorrik egin gabe, lanera joateko”.



Txankakua azpiko pasabidea amaraunez beterik

dago: “Txankakua zubiaren azpiko pasabidean armiarmak eta arma arma sare pila bat egoten dira. Inork ez du garbitzen. Pilar ikastetxera joateko pasabidea ere zikinkeriz beteta egoten da askotan. Dagokionak garbitu egin beharko luke”.

Herriko txoko guztiak txakur kakaz beterik daude: “King-Kong inguruan, elizako arkupeetan eta bidegorri berrian txakur kaka mordo bat egoten dira. Niri ondo iruditzen zait txakurra edukitzea, eta badakit paseatzera atera behar direla, baina kaka egiten dutenean, jabeak garbitu egin behar du. Eta garbitzen ez duenari isuna jarri behar zaio. Beste herri batzuetan jartzen dituzte isunak, eta Elgoibarren ere hartu beharko lukete horrelako neurriren bat. Herria dotoretzen ari dira, baina garbi zaindu behar da”.



Txalo bat Errosario kaleko jaiak antolatu dituztenei:

“Lan polita egin dute aurten Errosario kaleko jaietako antolatzaileek. Egitarau zabala prestatzeaz gain, etxe bakoitzaren izenak berreskuratu dituzte, eta oso polita gelditu da kalea. Mila esker egindako lanagatik eta segi horrela!”. Era berean, San Lazaro egoitzakoek ere eskerak eman nahi dizkiete antolatzaileei, joan zen egunean txokolata egoitzara eraman zirelako. Urtero bezala, Nagusilan elkarteko bolondresekin txokolata jatera joateko asmoa zeukaten, baina eguraldi txarraren ondorioz, ezin izan ziren joan Errosario kaleko txokolata jenera. Antolatzaileek txokolata egoitzara bertara eraman zieten, eta arratsalde polita izan zuten.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com edo 943 744 112



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Nafarroako Euskarazko Hedabideok iritzi publikoari

Nafarroako Gobernuak bigarren urtez blokeatu du euskarazko hedabideontzako diru-laguntzetarako gordeta zegoen partida. Uztailean agindutako 240.000 euroko diru-partida ezerezean gelditu da, Nafarroako Gobernuaren baitako Institutuak ez duelako deialdia garaiz argitaratu. Ez 240.000 euro, eta, ezta 9.567 euro ere. Euskarabideak egoera zuzendu ezean, Nafarroako gizartearen eskariari erantzunez euskarazko informazioa lantzen dugun hedabideok ez dugu euro bakar bat jasoko aurten. Nafarroako Gobernuak ez du bere betebeharrak eta konpromisoa bete, eta horrela erantzun dio hedabideetako ordezkariari urtebeteko ahalegina, lana eta elkarlanerako jarrerari.

Urtebete da Nafarroako euskara hutszeko hedabideok iritzi publikoaren aurrera atera behar izan genuela, Nafarroako Gobernuaren erabakiek gudan eragin zuten egoera larria salatzeko: Parlamentuak hala onartuta, euskaraz dihardugun hedabideoi zegokigun 310.000 euroko diru-poltsa 'blokeatu' egin zuen gobernuak, gutako askoren biziraupena kolokan jarri. 365 egun, makina bat ordu bilerak egiten, proposamenak lantzen, gure planteamentuak batari eta besteari azaltzen, xahutzeko ez ditugun indarrak honetan jartzen... zertarako eta duela urtebeteko egoera berdin-berdinean egoteko: ez daukagu hitzarmenik, ez eta aurtengorako laguntzarik ere. Eta hori

guztia gutxi balitz, orain ikusteko dago Gobernuan izandako aldaketek nola eragingo dioten gure egoerari.

Duela urtebete esan genuen, eta errepikatu behar dugu berriro ere: jasotzen ari garen tratamendua onartezina da. Nafarroako euskaldunek eskatzen diguten euskarazko informazioa ematen jarraitu nahi dugu, eta Nafarroako administrazioak euskarazko hedabideak babesteko betebeharrak du. Parlamentuak ere eskatu dio laguntza horiek behingoz zehazteko.

Nafarroako euskarazko hedabideok ahal izan dugun guztia egin dugu herritarren eskariari erantzun eta Nafarroako Gobernuaren betebeharrak gauzatzeko hitzarmena lantze aldera, eta gauza bera eskatzen diogu Gobernuari, eta bereziki Euskarabideari: alegia, bere lana egin dezala, besterik ez.

Nafarroako euskarazko hedabideok eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa

Nafarroako euskarazko hedabideok eta Topagunea

Aldaketa politiko eta soziala aurrera

Euskal Herriak gaur egungo marko zatikatzaileetatik aurrera biderik ez duela gehiengo batek partekatzen dugun gogoeta da. Herri hau itotzea helburu zuten markoak agortuta daude, eta aldaketaren atarian gaudela nabari da aspaldian. Ondo baino hobeto dakite hori Madrilen zein Parisen, eta aldaketa hori geldiaraz-

teko beraien gaitasun eza gero eta age-riago uzten ari dira. Beraien izaera anti-demokratikoa nabarmen gelditzen ari da. Horren adibide dira, gerra zikineko garairik beltzenetara buelta bizitzen ari garela: bahiketa politikoak, Jon Anzaren desagerketa, ezker abertzaleak pairatzen dituen boikot mediatikoa eta jazarpena, azkenaldiko erasoak, mehatxu faxistak...

Eguazten gaueko sarekada ere, estatuen ezintasun hortan kokatzen dugu. Aldaketaren beldur dira eta aldaketa horren motorra den ezker abertzalea jipoitzen dute behin eta berriro, beraien ezintasuna eta benetako izaera lotsagabeki agerian utziz. Aspaldian, ezker abertzalean konpartitzen dugun gogoeta da, gero eta gehiago asmatu gure bidean, gero eta gehiago kolpatuko gaituztela, eta ez gabilta horren oker antza denez. Ukaezina de estatuen errepresioak min handia egiten digula, baina duda izpirik ez dugu Euskal Herriak bizi duen gatazka gainditu eta aurrera egingo badu, elkarriketa eta eskubide guztien aitortzatik egingo duela. Jakin badakigu estatu biek ez daukate la arazo bat ezker abertzalearekin, bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta nahia dituen herri oso batekin baidak. Doala, gure aldetik, atxilotutako kide eta beraien sendientzat gure besarkadarik beroena.

Aldaketa politiko eta soziala aurrera. Arnaldo eta besteak askatu.

Elgoibarko ezker abertzalea

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISENUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Iurreta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Andres Alberdi

Jakinaren gainean egongo haiz, noski, duela pare bat aste, eskole-tan gertatzen direnak ikusita, lege-proiektu baten eske ibilia dela

Madrileko presidentea den Esperanza Aguirre, irakasleoi, galdua dugun itzalaren arrasto bila nonbait, autoritate



Anjel Ugarteburu

bati dagokion maila emateko (Firme!). Egun bertsean, Iñigo Larrea arartekoak, berriz, EAEko gazteen balioen inguruko txostena aurkeztu zian Legebiltzarrean, eta, konturik mamitsuena, izan zuan esatea gazteek balioak ez dituztela eskolan soilik jasotzen, baizik eta batez ere familian, eta gurasoek erronka handia dutela hor, ezin dutela beren ardura inoren esku utzi...; heziketa gauza serioa dela. Bruno Ferreroren ipuintxo batekin gogoratu ninduan, eta, beste ezer gabe, erabat ilustratiboa delako, huraxe kontatu nahi diat:

“Gazteek balioak ez dituzte eskolan soilik jasotzen. Gurasoek erronka handia dute hor”

Bikote gazte bat hiriko jostailu-denda onenean sartu zen. Biek, presarik gabe, sabaitik zintzilikatutako apaletan eta mahai gainean desordena alaiari zeuden koloretako jostailuak ikusi zituzten. Negar eta barre egiten zuten panpinak, joko elektronikoak, tartak eta pastelak egiteko sukaldetxoak... Ez zekiten zein aukeratu, eta dendari atsegin bat gerturatu zitzaion.

—Begira —esan zuen emakumeak—, guk alaba txiki bat daukagu, baina ia egun osoa etxetik kanpo igarotzen dugu, eta batzuetan, baita gaua ere.

—Gure alabak ia ez du barrerik egiten —gaineratu zuen gizonak.

—Gurekin ez dagoenean ere alaituko duen zerbait erosi nahi genioke —esan zuen emakumeak—. Bakarrik dagoenean ere alaituko duen zerbait.

—Sentitzen dut —esan zuen dendariak, irribarretsu eta adeitasunez—. Hemen ez dugu saltzen gurasorik

Ederra, Andres, ipuin hori. Berba gutxiko mezu ederra. Gurasoak gehiegitan huts ematen dituen alaba zelan gozatu?

Zer, eta barre egiten ahaztu neskatoari! Bada, gero! Umearen jana eta jantzia ez dira dena; ezta inportanteena ere. Gorputza elikatzeaz gain, haren go-go, ilusioa, poza, tristura... izakera osoa da arretaz hezi eta landu behar dena. Hemen datoz komeriak. Lanera joan behar, ordu asko etxetik kanpo, nekez gainezka etxera itzuli eta mundura ekarri dugun pertsona hantxe gure irribarrearen zain. Ezin diruz erosi hark eskatzen diguna; izan ere sentimenduz osatutako harremanen sarea, elkarrekin hitz eginez, kantatuz, jolas-tuz, barre nahiz negar, beregana dezake umeak, ez bestela. Hori gabe, hutsik geratzen da sentimentuzko harremanen ganbara hori; ezin barrerik egin. Negar ere ez, ziurrenik. Ipuinen utopiari adarretik helduz, beste ipuin batekin amaituko dut Ferrerok aurkeztu duen arazoari irtenbidea emateko.

“Umearen jana eta jantzia ez dira dena; izakera osoa da arretaz hezi eta landu behar dena”

Krisiak gogor jotzen gaituela eta, munduko ahaltsuek zera erabaki dute: gaur eguneko teknologiarekin, bada munduan inork gehiago goserik ez izateko aukerarik. Beraz, jaino berriari zor zaion begirunea aintzat hartuta, oraindik aurrera haren heziketa osoa lehenetsiko da toki guztietan; jostailuak engainu bihurtu ez daitezten.

Zerk, eta krisiak berak eman digu, azkenean, umearekin luzaroago egoteko aukera. Baina zer egin geure berba, soinu eta balioen ganbara hori hutsik badago? Ferrerok berak asma dezala amaiera, krisia ez baita ekonomikoa bakarrik.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Arnaldo Otegi atxilotu dute ezker abertzalearen kontrako operazioan

Atxiloteten kontrako mobilizazioak izango dira gaur iluntzean Plaza Handian

Martitzen arratsaldean Arnaldo Otegi elgoibartarra atxilotu zuten, ezker abertzalearen kontrako operazioan. Baltasar Garzon epailearen aginduz, LAB sindikatuak Donostian duen egoitzan atxilotu zuten Otegi. Berarekin batera, Rufi Etxeberria, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Txelui Moreno, Miren Zabaleta, Mañel Serra eta Amaia Esnal ere atxilotu zituzten. Guztiei, Batasunaren Mahai Nazional berria osatzen saiatzea leporatu die Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak.

Arnaldo Otegi iazko abuztuan irten zen espetxetik, hamabost hilabetez preso egon ondoren. Joan zen astean, bestalde, 2004ko azaroan Donostiako Belodromoan egin zuten ekitaldiagatik epaitu egingo dutela jakinarazi zuen Auzitegi Nazionalak.

Elgoibarko ezker abertzaleak deituta, Arnaldo Otegiren eta gainerakoek atxilotetak salatzen manifestazioa egin zuten hainbat



herritarrek eguzten iluntzean, "atxilotuak askatu" lemapean. Gaur iluntzean ere, atxilotuen askatasuna aldarrikatzeko mobilizazioak izango direla jakinarazi dute. 20:00etan hasiko dira ekitaldiak Plaza Handian.

32 elgoibartarrek jasoko dute odol emaileen intsignia

Datorren urriaren 25ean ospatuko dute Elgetan Debabarreneko eta Debagoieneko odol emaileen eguna, eta bertan, 32 elgoibartarrek jasoko dute odol emaileen intsignia. 25 aldiz, 40 aldiz eta 50 aldiz odola eman dutenak omenduko dituzte. Meza nagusiarekin hasiko dira eguneko ekitaldiak 12:00etan, eta ondoren, bazkaria egingo dute Espaloia Kafe Antzokian. Bazkal ondorenean banatuko dituzte intsigniak eta diplomak, eta gero, dantzaldia izango da. Interesatuak 943 743 936 telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago.



Parte-hartzea eta politika publikoen azterketa sustatuko ditu Udalak

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute, herritarren parte-hartzea eta politika publikoen azterketa sustatzeko. Horretarako, bi atal dituen azterketa egingo dute: batetik, telefono bidezko inkestak egingo zaizkie zoriz aukeratutako 600 elgoibartarrei, eta, bestetik, galdera-sorta labur bat bidaliko da etxe guztietara. Telefonozko inkestekin datorren astean hasiko dira. Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren gainean herritarrek duten ezagutzari buruzkoa izango da galdeketa: "Plan nagusia zehatz-mehatz ezagutzen duten baino gehiago, horrelako plan bat zer den eta martxan dagoen ala ez dakiten baizik. Horixe da jakin nahi duguna", argitu du Alfredo Etxeberria alkateak. Herritar guztien iritzia hartu nahi dute kontuan, bereziki eragiten dieten politika batzuen gainean. Horien artean daude gazteak eta euren ohiturak. Azkenaldian horrenbeste ugaritu diren gazteen lokalak, esaterako. Horien gaineko azterketa sakona egiteko asmoa dute Udalak eta Diputazioak. Alkateak ekimen honetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritar guztiak.

Lekua **Udal Liburutegia**



Elgoibarko Udal Liburutegiari Gotzon Garate izena ipiniko diote. Oraindik Osoko Bilkuran gaia azertu ez arren, Udaleko alderdi politikoak proposamen horren alde azaldu direla aurreratu du Alfredo Etxeberria alkateak. Bestalde, Liburutegian bertan idazle eta euskaltzale elgoibartarrari eskainitako txokoren bat jartzeko asmoa ere azaldu du Udaleko agintari nagusiak. Oraindik ez dakite seguru zer egingo duten, baina litekeena da Gotzon Garateren lanak ikusgai jartzea.

Berbia **Animalterapia**

Elgoibarko Eguneko Zentroak animalterapia izeneko egitasmoa jarri du martxan. Bizitzen Fundazioaren lankidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin. Txakurrekin hasiko dira lanean. Endekapen kognitibo eta beste hainbat patologia dituzten pertsonengan erabiltzen da animalterapia teknika, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Besteak beste, pertsonen gaitasun fisikoa, komunikatzeko ahalmena eta egoera psikologikoa hobetzen da.

Irudia **Santa Klarako errotonda**

Aparkatutako auto ilara luzea ikustea ohikoa zen Santa Klarako errotondan, baina, leku horretan aparkatzeagatik isunak jartzen hasiko direla jakinarazi du Elgoibarko Udaltzaingoak. Urriaren 13an jarri zuten martxan arau berria, eta aste honetan, oso auto gutxi zeuden, eta gainera, isuna zeukaten.



IMHko 30+10 mintegia Internetez zuzenean

Datorren urriaren 22an izango da enpresa kudeaketan hizkuntzari buruzko 30+10 mintegia IMHn, eta www.imh.es web guretik zuzenean jarraitzeko aukera izango da. Aurten, gainera, ikusleek galderak eta komentarioak uneoro egin ahal izango dituzte, txat sistemari esker. Mintegia 9:00etan hasiko da, eta Euskal Herriko erakundeetako eta enpresetako ordezkariekin batera, Europako adituen ekarpenak ere izango dira.

1942koen kinto bazkaria

1942an jaiotako elgoibartarrak kinto bazkaria egingo dute datorren azaroaren 21ean Sigma jatetxean. Ospakizunean parte hartzeko interesa dutenek 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071076726. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a izango da.

1969an jaiotako eta Ikastolan ikasitako bazkaria

1969an jaiotako eta Elgoibarko Ikastolan ikasitakoek euren 40. urtebetetzea ospatzeko bazkaria egingo dute urriaren 31n. Ospakizunean parte hartzeko interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korrontean, urriaren 28rako. 2101 0036 66 0012438016. Informazio gehiago 619 121 332 (Maria Pilar) edo 656 722 415 (Lorea) telefonotatik.

Ballet-a ikustera joateko irteera antolatu du Haizeak

Haizea emakume taldeak San Petersburgoko balletaren obra ikustera joateko irteera antolatu du. Ikuskizuna abenduaren 8an izango da, 20:00etan hasita, Donostiako Kursaal aretoan. Interesatuek Pitxintxu liburu-dendan jasoz dezakete informazio gehiago.

Estatu Batuetako presidenteari eman diote Bakearen Nobel Saria.

Barack Obamak merezi du Bakearen Nobel Saria?



Saioa Alkorta
26 urte, komertziala

Nire ustez azkarregi eman diote saria. Momentuz asko hitz egin du Obamak, baina ez du ezer egin. Esandako guztia betetzen badu, merezitako saria izango da, baina hori ikusteko dago. Eduki du zeozer egiteko denbora, baina dena hitzetan geratu da, momentuz.



Olaia Martinez
25 urte, estetizista

Ez, oraindik ez baitu ezer egin. Esandako guztia bete dezan pre-sionatzeko modua izan daiteke, baina propaganda egiteko modua ere bada. Badirudi mundu guztia berari begira dagoela. Nahiko nuke esan duena betetzea, baina zaila ikusten dut.




Libia Guayara
48 urte, ume-zaintzailea

Ez nekien saria eman diotenik ere! Dena dela, azkarregi eman diotela uste dut. Asmo onak erakutsi ditu, baina oraindik asmo hutsak dira. Une honetan badaude bakearen alde lan gehiago egin dutenak. Ikusi egin beharko da esandakoa betetzeko gai den edo ez.



Juan Martin
63 urte, jubilatua

Pertsona nahiko jatorra iruditzen zait, eta adituek saria eman badiote, merezi duelako izango da. Bide onetik doala iruditzen zait, eta aurreko presidentea baino hobeto ari da. Hala ere, akaso azkarregi eman diote saria, baina gauzak ondo egiten dihardu.



I. URTEURRENA

PEDRO OSTOLAZA ESNAL

2008ko urriaren 13an hil zen, 59 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urriaren 18an,
goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ELGOIBARREK GOTZON GARATE OMENDU DU



Elgoibartarrek esker ona eta maitasuna erakutsi diote idazle, jesuita eta euskaltzale elgoibartarrari, bere heriotzaren urteurrenean.

Hunkigarria izan zen urriaren 8ko herri-omenaldia. Plaza Handia jendez bete zen, eta, euriaren mehatxua uncoro gainean izan bazen ere, polita izan zen Gotzonen jaiotetxean haren omenezko oroitarria bistaratzeko ekitaldia. Gero, Musika Eskolan izan zuen segida Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak, herritar batzuekin batera, antolatutako herri-omenaldiak, eta hitz baten laburbildu beharko bagenu omenaldian bizi izandakoa, hunkigarria izan zela esango dugu. Musika Eskola txiki geratu zen elgoibartarrok Gotzoni diogun estimazioa erakusteko. Gainera, omenaldia Internet bidez zuzenean segi-tzeko aukera ere izan zen.

Urriaren 9an, berriz, Gotzonen lanen gaineko erakusketa inauratu zuten. Gotzon bera hobeto ezagutzeko, eta, batez ere,

Gotzonen lanaren handitasuna ikusi eta ezagutzeko aukera paregabea da urriaren 23rarte zabalik egongo den erakusketa.

Bi egunotako erretratuak ekarri ditugu gehigarri honetara. Baina, hori baino gehiago ere ikusi eta irakurri ahalko duzue gehigarrian zehar: Udaleko Euskara Saileko eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen presidenteez, iritzi artikulu bana idatzi dute. Gainera, Gotzonen txikitako lagunekin ere egon gara, eta aspaldiko oroitzapenei hautsa kentzen jardun dugu. Gotzonen anaia den Roman Garateri, berriz, bi orritako elkarrizketa egin diogu, bi anaien arteko harremana eta elkartzitza zelakoa izan den jasotzeko helburuarekin. Eta, amaitzeko, Gotzonen iritzi eta pentsamenduen entresaka txiki bat egin dugu azken orrian, Gotzon hobeto ezagutzeko helburuarekin.

Gehigarriaren koordinatzailea: Imanol Larrañaga
Elkarrizketak: Ainhoa Andonegi eta Ainara Argoitia
Erretratuak: Asier Orbea eta Ainhoa Andonegi
Diseinua eta maketazioa: Leire Rubio



ETA ORAIN, ZER?

Urtea da gure artetik alde egin zenuela, Gotzon. Eta zoritxarreko heriotzaren urteurrenarekin batera, zure izen-abizenak han eta hemen azaldu eta entzun dira. Behar bada, azken egunotan gehien entzun diren izen-abizenak izango dira zureak. Herri-omenaldia antolatu dizugu; zuen jaiotetxeko horman Angel Mari (Gotzon) Garate hizkiak iltzatuta geratu dira betiko; erakusketa bat prestatu dugu zure liburugintzaren handitasuna ikusi nahi duenarentzat; BARRENen ez dakit zenbat orri eskainiko dizkizugun; aparteko hitzaldi-zikloa antolatu dugu, zu eta euskara aitzakia hartuta ... Dena zure omenez. Jendeak baloratzen duelako zuk egindako lana. Elgoibartarrok estimatzen zaitugulako, Elgoibartik 12 urte zenituela alde egin bazenuen ere.

Ondo dago hau dena; egin beharrekoa zen zure izena eta izana ahanzturaren zulo beltzera ez jausteko, baina, behar bada, ez da hori zuk elgoibartarrongandik jaso nahi duzuna. Elgoibartik datorren guztia ontzat hartzen duzula irakurri nizun behin, eta pozik egongo zara zure omenez prestatu dugunari begira. Alabaina, zuk beste gauza bat nahi duzu. Zuk nahi duzuna elgoibartarrok gure euskaltasunari eustea da. Baina, noski, hau omenaldi bat prestatzea baino zailagoa da. Omenaldiak egun bateko kontuak dira. Elgoibarren, ordea, euskalduna izateko borondatea eguneroko jardunarekin uztartu behar da, eta hau, zoritxarrez, zuk eta guk nahi baino gutxiago ikusten da gure kale eta etxeetan.

Aurreak erakusten omen du atzeak zelan dantzatu. Eta guk, zorionez, maisu ezin hobea daukagu elgoibartarrok mingaina zelan dantzatu behar dugun ikusi eta ikasteko. Ez dakit zenbatek segituko dugun zure arrastoa, baina Elgoibarko Izarratik aha-leginduko gara zuk zabalduetako bidea sasiek itxi ez dezaten. Astirik eta aukerarik baldin badaukazu, Gotzon, zaindu egiten diharduguna, eta bidean okertzen bagara, esaguzu beldurrik gabe.

Ander Soraluze
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteko lehendakaria

ESKERRIK ASKO, GOTZON

Gotzon Garate ... Zer esan gizon honi buruz? Elgoibarko Udalaren Euskara Sailaren izenean, honako honetan hitzaurte hau egitea egokitu zait. Ziur nago ni baino gehiago esatekorik duenik badela, baina ohorea da niretzat hemen idazteko eman didaten aukera hau. Eta ohorea diot, Gotzonek daukan itzala zinez handia delako.

Beste askok bezala, Gotzonen obrarekin izan nuen lehen harrimana, Batxilergo garaian irakurri beharreko bere liburu bat izan zen: *Izurri Berria*. Han hasi zen, eta beste zenbaitekin jarraitu (*Esku leuna, Goizuetako ezkongaiak, ...*). Gustura eta erraz irakurtzeko liburuak. Denborarekin jakin izan nuen beste arlo askotan ere aritua eta aditua zela Gotzon, arlo horiek gehiegi sakondu ez ditudan arren.

Buru belarri aritu da bere helburuak lortzeko lanean. Bizitza osoa (beno, bizitza osoa ez, berak esana baita 12 urterekin hartu zuela euskararen kontzientzia), euskarari dedikatuz. Gotzonek ordain ezineko obra ugari utzi dizkigu. Beraz, bihoa omenaldi xume hau egindako lanagatik nire eskerririk beroenak emateko.

Bere garaian Euskal Filologiako karrera sortzea ez zen lan erraza izango. Hala ere, Gotzonek ereindako haziak eman du fruitua hor ditugulako bere ikasleak han eta hemen euskararen alde lanean dihardutenak.

Horretaz gain, baserrietan ere izan zuten bera ezagutzeko aukera. Zenbat eta zenbat ordu pasako zituen Gotzonek baserri baserri, datuak jaso eta bere koadernoetara biltzen, galtzeko arriskuan zeuden hitzak berreskuratzen eta euskal baserrietan



isilpean gorderiko altxorak guri erakusten. Eta horrela jarrai nezake amaigabeko meritu zerrenda aipatzen.

Pena bat daukat: pertsona ezagutu ez izana. Bere obraren berri izan arren, azken urte honetan, bere omenaldia prestatze lanean, jabetu naiz benetan Gotzonen dimentsioaz. Bere gizatasunari buruz zer esan? Harenganako miresmena da nabaritu dudana sentimendu nagusia.

Beraz, Gotzon, atrebentzia ez bada, utziko didazu idatzi labur hau guztiz hunkitu nauen zure esaldi batekin bukatzen? Ezin hobeto dator-eta zure izaera laburbiltzeko, eta zure lanari esker beste askok ere geure egingo duguna: Euskara ala ezkara. Baina esan behar dizut Gotzon, lagun bati irakurri nion moduan, eta hein handi batean zuri eta zu moduko beste pertsona haundiei esker ... , Euskara, beraz, bagara. Mila esker denarengatik, Gotzon.

Jon Peli Uriguen
Udaleko Euskara Batzordeko lehendakaria



Tente: Ramon Arozena, Sabin Argarate, Inazio Mugertza, Joxe Mari Ibarluzea, Bixente Untzila, Jesus Rementeria eta Sabin Garate. Makurtuta: ezezaguna, Roberto Sol, Juan Jose Gorrotxategi Plantillerito, Felix Aiesta, Xabier Argarate eta Gotzon.



PLAZA TXIKIAN HAZITAKOAK

Oroitzapen lauso batzuk baino ez dituzte gordetzen Jesus Mari Ansolak, Tomas Belaustegi *Bizkaik* eta Sabin Argaratek umetan Gotzon Garatekin igarotako momentuez, haurtzaro zoriontsua izan zutenaren erakusgarri. Izan zitekeen bestera ere, baina. Izan ere, bete-betea harrapatu zituen Francoren garai gogorrenak. "Eskolan eta lagunekin erdaraz egiten genuen, eta etxean, euskaraz", esan du Jesus Mari. Gotzonek berak esana da 12 urterekin hartu zuela euskararen kontzientzia, Durangora joan zenean. "Gotzon izena bera ere... Anjel Mari zen guretzat. Euskaltzale amorratua egin zen gero, eta orduan hartu zuen Gotzon izena".

Plaza txikian batzen ziren orduan futbolearen edo kaniketaren aritzeko. "Bata besteari traba egiten" ibiltzen ziren. "Futbolari moduan antzekoak ginen, baina saltaka Gotzon gehiago zen. Azkarra zen, ni baino askoz azkarragoa, baina ez bere anaia Jose Luis bestekoa. Hura polbora zen", gehitu du Bizkaik.

Antxitxika trebea zen Gotzon, eta horrek estuasun bat baino gehiagotik libratu zuen. "Leku Ederren ortuak zeuden lehen, eta guk gosarik pasa ez arren, sobrate handirik ere ez genuen izaten. Gogoan daukat zelan joaten ginen Ulaziaren ortura, sagarrak lapurtzera. Saltaka jaisten ginen gero San Roketik Santanara, Ulazia eta txakurra atzetik genituela. Goiko-errotara iritsitakoan uretara salto egiten genuen, erropa eta guzti, eta han gelditzen ziren Ulazia eta txakurra begira", dio Bizkaik. Haiak nekatzen zirenean, erropak kendu, bazterren batean lehortzen jarri, eta igerian jarraitzen zuten.

Korrika bakarrik ez, hala ere. Bestela ere "azkarra" zen Gotzon, Jesus Mariaren arabera. "Ni baino bi urte zaharragoa ere bazen, baina nik lidertzat neukan", dio. Monagillo elkarrekin jardun zuten, eta gogoan ditu Gotzonek kontatzen zizkion ipuinak. "Trudimen handia zeukan. Santuak gordetzen zituzten gelan elkartzen ginen, eta han egoten ginen Gotzoni entzuten.

Piraten kontuak, sorginenak, *saka-mantekasenak*... ipuin beldur-garriak denak ere. Ez nau harritzen gero Bronxera joan izana".

Plaza txikitik frontoira. Futbolearen ez zenean pilotan aritzen ziren. "Gerardo Arriolak lagatzen zizkigun pilotak, biguntze aldera. Eskuak txikitzen genituen guk", gogoratu du Bizkaik. Etxean euren egindakoekin ere sarri ibili behar izaten zuten, baina. "Hariarekin egiten genituen, nola edo hala. Gero izaten ziren kontuak ama hari bila hasten zenean. Gure amak ere ez zekien erderaz, baina orduan botatzen zituen ederrak!".

Garatetarren jostundegian ere izaten zen haria ugari. Sabin jostundegi parean bizi zen, eta behin baino gehiagotan tokatu zitzaion lan egitea. "Lan asko izaten zen han, eta traje barrenetako hariak kentzen jartzen gintuzten gu, hilbanatutakoa soltatzeko", dio. Akorduan dauka 19:00ak aldera, errosarioa errezatzen zutela, eta goizean, orduero, aitagurea. "Fede handikoak ziren. Anjel Mariaren aitari *aitxaren* esaten zioten. Ez da harritzekoa lau seme Jesuita sartu izana". Gotzonen gurasoak oso langileak zirela dio Sabinekin, eta akorduan dauka motorrean zelan ibiltzen ziren, atzean trajeak zituztela. "Elgoibarren lehenengoetako motorra izango zen hura", dio.

Zinea ere gauza berria zen. Igandetan izaten zen, baina ordaindu egin behar zenez, sarri kanpoan gelditu behar izaten ziren. Oesteko pelikulak, besterik ez zen izaten. Hortik gero bakerotan jolasteko zaletasuna. Beranduago etorri ziren bestelakoak. "*Las chicas del tren* ekarri zutenan han jarri ginen denok lehenengo ilaran, zerbait ikusteko asmotan", bota du Bizkaik. Neskatan hasi gabe zeuden artean, baina ordurako begiz jota zituzten euren adineko neska batzuk, Gotzon Garatek berak aitortu izan zuen moduan: "Isabelita *Txatia*, Ana Mari Irureta, Libe Iriondo eta beste batzuei, gaztetxo guztiok begi argiz begiratzen genien; politikak eta jator askoak ziren". Izenak aitatzearekin batera, bat etorri dira Gotzonen umetako lagunak. "Begi ona zeukan".

Herri-omenaldia argazkitan



Plaza Handira delituta zeudea urriaren 8an Gotzonen omendu nahi zuten herritarrek. Herriko plaza jendez beteta zegoen arratsaldeko 19:00etan.



Anitak, arreba zaharrenak, bistaratu zuen Gotzonen omenez haren jaiotetxean jarritako oroitarria.



Oroitarria bistaratu ondoren, Gotzonen jaiotetxea bedeinkatu zuen Benantzio parrokoak.



Polita eta hunkigarria izan zen Gotzonen ilobek etxearan aurrean dantzan egin zuten unea.



Amaieran, Angel Ugarteburuk prestatutako bertsoak kantatu zituzten han bildutakoek.



Erretratuan, Gotzonen anal-arrebak, omenaldiko eragileak, eta omenaldian parte hartu zuten batzuk ikusi ditzakegu, denak Gotzonen inguruan.



Elgoibarko alkatea eta Elgoibarko Izarrako presidentea Gotzonen anal-arreben alboan egon ziren omenaldiak irauan zuten artean.



Gotzonen erretratuarekin osatutako bideoari laguntzeko, haren gustako bi kanta kantatu zituzten Agurtzane Garziak eta Mari Juli Arregik.



Azpeltiko Odrizolatxo baserrikoek ere ez zuten huts egin; Gotzonen ere izugarri estimatzen zituen Jose Inazio eta Arantxa.



Musika Eskolako auditorioa txiki geratu zen. Gotzon joan zen, baina, bistan da, elgoibartarren akorduan geratu dela.



Anal-arreba guztien izenean, Romanek jaso zuen antolatzaileek egindako erregalua.



Urriaren 9an Gotzonen lanen gaineko erakusketa inauguratu zen Kultur Etxean. Urriaren 23ra arte egongo da zahalik erakusketa.



Jabier Kultzakortak, Gotzonen ikasleak eta lankideak, eman zituzten Gotzonen lanen gaineko azalpenak erakusketaren inauguraziora joan zirenei.




Erakusketan, Gotzonen liburu eta lanak ez ezik, Gotzonen izaera eta bizitza hobeto ezagutzeko hainbat panel ikus daitezke.



30 liburu inguru argitaratu zituen Gotzonek; denak daude ikusgai erakusketan.



Erakusketa inauguratu ondoren, kanta kalejira izan zen Kultur Etxean hasi eta Madalaraino.



ROMAN GARATE: “Anaia nirekin dago, eta ni berarekin”

Roman Garatek 84 urte ditu. Anai-arreben artean seigarrena da, eta Gotzon baino hamar urte zabarragoa. Anaiak, jesuitak eta lagunak ziren Roman eta Gotzon, azken urteetan, batez ere. Haren heriotzaren urteurrenean, familiaren bizipenak eta oroitzapenak ekarri ditu gogora Romanek.

Urtebete pasatu da Gotzon hil zenetik. Nolakoa izan da zuretzat, urte hau?

Betea izan da. Bizitza drama da, eta drama hitzak greko mugimendua esan nahi du. Eta drama batzuetan tragedia izaten da, eta beste batzuetan komedia. Sarritan tragikomedia bihurtzen da. Anaiak eta biok sarritan barre egiten genuen hemen, Komunitatean, eta hori ezin dut beste inorekin berri. Bera nirekin dago, eta ni berarekin. Bere oroitzapen zoragarriak nirekin daude.

Nolakoa zen zuen arteko harremana?

Bizipen oso gogorrak izan genituen. Ni izan nintzen berarentzat aita, ama, semea, alaba eta dena! Berarekin egoten nintzen goizetik gaueraino. Harreman estua geneukan, gero eta estua-
goa, sakonagoa eta maiteagoa. Niri igerian egitea izugarri gustatzen zait, eta abuztuaren Getariara joaten naiz, normalean. Laz ez nintzen joan, eta niretzako gozamina izanda, zergatik ez nintzen Getariara joan galdetu zidan anaiak. “Anjel Mari, zurekin hemen egotea gozamen handiagoa da niretzat”, erantzun nion. Eta egia zen. Azken 40 urteak elkarrekin eman ditugu.

Nola bizi izan zenuten Gotzonen gaixotasuna?

Azken urteetan, batez ere, oso gogorra izan zen. Buruko infartua eman zion, eta gainera minbizia zeukan. Ohetik altxatzeko ere ez zen gai. Burua beti argi izan zuen, eta bihotza gero eta maiteago. Bakean eraman genuen gaixotasuna, eta azken unera arte, umorerik galdu gabe, berak batez ere.

Nola ikusten zuen heriotza?

Askotan esaten zidan, bazela Jaunak bere ondora eramateko ordua, eta beldurraren arrastorik ere ez zeukan. “Hil eta piztu zerala jauna” esaten dugu guk, eta hori oso barneratuta zeukan. Bizipoz handia zeukan. Bezperara arte argi-argi egon zen. Egunean bertan ondoez txiki bat izan zuen, eta hantxe gelditu zen, aingerutxo bat bezalaxe.

Zerk kezkatzen zuen, Gotzon?

Bere kezka nagusia euskararen galera zen. Mina, heriotza eta munduan gertatzen diren ezbeharrak ikustea ere mingarria zen berarentzat, eta baita elizaren kontrako irainak ere; kritikak ez, irainak. Jesuslaguna zen, eta berarentzat Jesukristo eta eliza oso garrantzitsuak ziren. Ekologiak ere kezkatzen zuen, eta naturaren kontrako kalteekin ere kezkatuta zegoen.

Hamaika anai-arreba eta gurasoak bizi zineten Elgoibarko etxean. Nolakoa zen zuen bizimodua?

Askotan gogoratzen zituen berak aita eta ama, eta esaten zidan: “Roman, zelako zorionsuak izan ziren aita eta ama, eta zelako maitasuna eman ziguten...”. Aita eta ama adoratu egiten zituen. Familia zoragarria izan zen berarentzat.

Lau anaia Jesuita. Nondik datorkizue bokazio hori?

Gure aitak sartu zuen etxean kristautasuna eta maitasuna, eta sekula ez nion debekurik entzun. Nik Jesuita sartzea erabaki nuenean, aita izan zen jakiten azkena. Amak bazekien,

etxekoe eta lagunek ere bai, baina aitak ez. Banekien aitarentzat disgustua izango zela. Bi edo hiru egun hitzik esan gabe egon zen. Ez haserreagatik, baizik eta disgustuagatik. Gerora, Innsbrucken (Austrian) eman nuen nire lehenengo meza eta hantxe izan ziren gurasoak eta Anjel Mari anaia. Aitak esan zidan bere bizitzako egunik zorionsuenak izan zirela.

Noiz erabaki zuen Anjel Marik Gotzon izena hartzea?

Jesusen Lagundian artikulua idazten hasi zenean, Gomiga izena hartu zuen: Gotzon Miren Garate. Jesusen Lagundian, euskal munduan barnatzen hasi zenean Gotzon izena hartu zuen, baina gure etxean Anjel Mari izan da beti.

Hizkuntza asko hitz egiten zituen, baina euskara maite zuen.

Bere amasa eta bere bihotz taupada zen euskara. Miterrand presidenteak esan zuena gogoratzen zuen beti: "Hizkuntza bat hiltzen denean, herri bat hiltzen da". Geure nortasuna zabaldu nahi zuen, inor baztertu gabe, jakina. Azken egunera arte euskararen alde egin zuen lan. Behargina zen, eta euskara maite zuen. 'Maitasuna' hitza asko erabiltzen zuen. 'Errespetua' ere bai, eta azken urteetan sarri errepikatzen zuen 'esker ona'. Jendeari eskerrak ematea nahi zuen.

Gotzonek esana da, Euskal Herrian apaizek euskararen alde lan egin behar zuten. Zer uste duzu zuk horri buruz?

Nik ere euskara maite dut nire bihotz taupadak bezalaxe. Berarekin bat nator horretan. Euskaldunak gara, eta euskaraz egin behar dugu. Ez inor baztertzeko, baina geurea delako. Gotzonek mundu osoan zehar zabaldu zuen euskara.

Zuen ume denboran euskaraz hitz egiteko zailtasunak zeuden. Nola moldatzen zineten euskaraz egiteko?

Nik artikulua idatzi dut horri buruz. Sarri esaten dugu gaur egun gure ume denboran baino gehiago egiten dela euskaraz, eta bera ere optimista zen horretan. Baina ez zen gogoratzen *gerra inzibilak* harrapatu zuela ume denboran. Ni komunio handia egiteko prestatzen ari nintzen, euskaraz, beste 60 lagunekin, eta Nazionalek bortxatu egin gintuzten gazteleraz ikastera. Euskararen kontrako joera nagusitu zen, eta euskara kaikuena zen. Emakumeek sufritu zuten batez ere joera hori, eta euren artean gehiago egiten zen gazteleraz gizona ezkoen artean baino. Gure etxean beti euskaraz egiten genuen. Gotzonek euskara makalarekin egin zuen topo, eta eskoletan ere euskara baztertuta zegoen. Berak sekulako bultzada eman zion, eta meritu handia izan du.

Nolakoa zen Gotzonen eta Elgoibarren arteko harremana?

Izugarri maite zuen Elgoibar, apur bat *Chauvinista* zen kontu horrekin. Mundua maite zuen, baina herritartasunarekin maite zituen beste herriak. Euskal Herriaren mamia Elgoibarren jaso zuen, eta bere ustez, Elgoibarren hitz egiten den euskara zoragarria zen. Elgoibarrekin asko gogoratzen zen.



“Nabiago dut euskaraz mintzo den Euskal Herri azpiratua, Euskal Herri independente erdalduna baino. Euskara galduz gero, dena galdu dugu”.

Azken orria Gotzontzat berarentzat gorde dugu. Haren diskurtsoarentzat, zehatzagoak izateko, 2005eko uztailean Hasier Etxeberria idazle elgoibartarrak JAKIN aldizkarian Gotzoni egindako elkarrizketa sakon eta interesgarria hartu, eta Gotzonek esandako ideia batzuen entresaka egin dugu. Elkarrizketa osoa irakurri nahi baduzu, eskatu JAKIN aldizkaria Udaleko Euskara Sailean (Telefona: 943 74 43 66 / E-posta: www.euskara@elgoibar.org).

Elgoibar eta familia

- “Nire haurtzaroa guztiz zoragarria izan zen Elgoibarren. Niretzat ez dago munduan Elgoibar bezalako herririk”.
- “Bizitza honetan eduki dudan gauzarik ederrena familia da”.
- “Gure gurasoak oso fededunak ziren; gure aitari batzuek ‘Aitxaren’ deitzen zioten, ermita eta leku seinalatuen aurretik pasatzean aitaren egiteko ohitura zuelako. Beraz, ez da harrizkeoa izango lau seme jesuita sartu izana”
- “Elgoibarko seme-kuttun izendatzeko proposamenak poz handia eman zidan; ez naiz tituluen gose, baina elgoibartarren aldetik datorren guztia oso estimagarria da”.



Bizitza, bizipoza ...

- “Irmotasuna, jakinduria eta maitasuna osatzen duten koktela bezalakorik ez dago bizipoza loratzeko”.
- “Mundu honetako gauzarik handiena maitasuna da, eta oinarria, justizia.”
- “Jendearekin tratatzerakoan beti pentsatu izan dut bi baldintza bete behar direla: maitasuna eta errespetua”.
- “Egiak, maitasunarekin batuz gero, pentsatu ezinezko indarra eta eragina ditu”.
- “Nahiko independentea izan naiz beti. Ez dakit bakarrik jaten, baina kirola egiteko ez bada, gusturen neure gelan egoten naiz lanean: bakar-bakarrik”



Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean

“Deustan irakasle hasi nintzenean, ikasi nuen hemen bagenuela filologia hispanica, aleman filologia, ingelesa eta frantsesa ere bai ... Baina, gure herrian euskal filologiari ez?!” Errektoreari esaten nion euskal filologia jarri behar genuela, baina kasurik egiten ez zidatenez, 1977an artikulu bat idatzi nuen, eta Euskal Herriko egunkari guztietara bidali: “El proximo curso comienza la filologia vasca en La Universidad de Deusto”. Errektoreak txantajista nintzela esan zidan, baina jendea animatzeko egin nuela erantzun nion. Eta halaxe hasi ginen, eta gaur arte”.



Euskara, abertzaletasuna, independentzia, autodeterminazioa ...

- “Jaingoarekin batera, euskara izan da beti nire bizipoza”.
- “Hizkuntzak ikastea izan da umetatik nire zaletasun handienetako bat. Mintzatzeko, adibidez, bederatzi ikasi nituen”.
- “Bederatzi arte kanpoan eman ondoren, euskara berreskuratzeko biderik motzenaren bila hasi nintzen. Hoberena baserrietara jotzea zela erabaki nuen. Erdi-erdtik asmatu nuen; bai horixe!”
- “Abertzale izatea euskararen eta Euskal Herriaren independentziaren alde egotea da. Euskara independentziaren aurretik, elkarri estu-estu lotuta badaude ere. Nahiago dut euskaraz dakien eta euskararen alde diharduen ez-abertzalea, euskalduna ez den abertzalea baino”.
- “Euskara galduz gero, dena galdu dugu. Eta euskarari eusten badiogu, ni ziur nago goiz edo berandu lortuko dugula independentzia. Euskal Herriaren independentzia gure nortasunari eustearren nahi dut. Espainolen azpian bagoaude, euskara galduko dugulako.”
- “Autodeterminazio eskubidea ez dugun bitartean, Euskal Herrian istiluak izango dira; ez da bakerik izango”.



**AIRETIK ATERATAKO
ERRETRATUAK
SALGAI!**

Eskatu zeurea!
Informa zaituz
943 744 112 telefonoan.

B
BARREN

**BARRENeko
erretratuak
salgai!**

BARREN astekarian edo
www.elgoiBARREN.net atari digitalean
argitaratzen diren erretratuak erosteko
aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

B
BARREN

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com

Parte-hartze handia eta giro paregabea izan dira bost egunez Errosario kaleko jaietan

Haritz dantza taldekoen ezpatadantza izan da egitarauko ekitaldirik hunkigarriena

Bost egun egin dituzte jaietan Errosario kalean. Bost egun eta hamaika ekitaldi izan dira Ama Birjinaren omenezko jaietan. Hilda-ko bizilagunen aldeko meza, herri kirolak, sokamuturra, pilota partidak, txokolatada, eta aurten, estrainekoz, oliba-hezurren jaurtiketa ere bai. Dudarik gabe, baina, domekan Haritz Euskal Dantzari Taldekoek egindako ezpatadantza izan zen ekitaldirik bereziena. Garai batean egiten zen ezpatadantza birsortu dute, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende ugari batu zuten. Jaietan saritutako errifa zenbakiak honako hauek izan dira: 2408, 1633, eta 1697. Erreserbakoak, berriz, beste hauek: 2181, 0497, eta 2731.



Haur eta gazteak, eguazteneko sokamuturrean.



Ama Birjinari eskainitako ezpatadantza.



Haurrak, oliba hezurak jaurtitzen.



Haritz dantza taldekoak Errosario kalean. Behean, eguneneko txokolatadako irudi bat.



Haritz Euskal Dantzari Taldekoak Kultur Etxe parean dantzan, udal agintarien aurrean.



Mauxitxakoak, Kultur Etxe aurrean.

Nerabegaroko kezak aztertu ditu Jasone Osorok 'Ezekiel' eleberri berria

14 urteko mutiko baten bizipenetan oinarritutako lana da

Jasone Osorok *Ezekiel* izenburuko eleberria kaleratu berri du, Elkar argitaletxearen eskutik. Bi urte pasatu dira *Jara* eta *Jara Bartzelonan* eleberriak argitaratu zituenetik, eta honako hau gazte literaturako bere hirugarren lana da. Aurreko biak idazteko, neska nerabe baten bizipenetan oinarritu zen, eta oraingoan, berriz, 14 urteko mutiko baten ilusio, fantasia eta buruhausteetan.

Ezekiel amarekin eta arrebarekin bizi da etxean, inolako erreferentzia maskulinorik gabe. Neskek buruhausteak ematen dizkio, etxe barruan zein kanpoan. Egun batean, koadrilakoak lokalean sartuta berrikeretan ari direla, inork ez duela oraindik neska bat musukatu oharzen dira. Horri erremedioa jarri nahian apustua egingo dute, ea zeinek



lortu lehenago. Horrek zeresan handia emango die lagunartean.

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen omenezko hitzaldi-zikloa hasiko da eguaztenean



Gotzon Garateren inguruko hitzaldi-zikloa hasiko da eguaztenean. Miel Anjel Elustondok *Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile* izenburuko hitzaldia eskainiko du hilaren 21ean Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, eta, aldi berean, Bidegileak bildumaren barruan Gotzoni buruz argitaratutako liburua ere aurkeztuko du. Arratsaldeko zazpiretan hasiko da Elustondoren hitzaldia, eta hara gerturatzen diren guztiei doan emango zaie liburua. Eguaztenez aurrera, berriz, Kultur Etxean bertan eskuratu ahal izango da liburu hori, debalde.

Egaña eta Zubeldiarekin bertso afaria Mendaron


Bertso afaria antolatuta dute Mendaroko Gaztetxean azaroaren 6rako, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariekin. 21:30ean hasiko da afaria, baina aurrez, 20:00etatik aurrera, trikibertso poteoa egingo dute herrian. Bertso afarirako tiketak 20 eurotan jarri dituzte salgai, eta interesatuek urriaren 28a aurretik eskuratu beharko dituzte, Ormola edo Lekuona tabernetan.

Errabaljazz jaialdia, urriaren 23tik aurrera

Errabaljazz jaialdia hasiko da gaur zortzi, urriaren 23an. Miguel Salvador Projectek kontzertua eskainiko du Eibarren, Koliseoan, 20:30etik aurrera. Hurrengo egunean, hilaren 24an, Bill Lyerlyren kontzertua izango da Soraluzeko liburutegiko aretoan, 22:00etatik aurrera. Organiksek eta Mookombak ere joko dute Mutrikun eta Elgetan, hilaren 25ean eta 31n, hurrenez hurren.

Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak salgai Elgoibarko Izarran

Abenduaren 13an jokatuko da BECen Bertsolari Txapelketako finala, eta sarrerak Elgoibarko Izarran eskura daitezke, 26 eurotan. Sarreraz gain, autobuserako txartela eta bazkaritarakoa ere jarri dituzte salgai, 12 euro eta 20 eurotan, hurrenez hurren. Ez dago, hala ere, denak erosi beharrik. Komeni dena bakarrik.



HITZALDIA: "Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile"

"Bidaia, Gotzon Garateren bizitza eta obrak lagun harturik. Umetako Elgoibar, gaztetako Loiola eta Innsbruck, heldutako Deustu, New York eta India... bisitatuko ditugu. Eta garaian-garaian, marxismoaren gaineko lanak, polizi nobela beltzak, atsotitzak... irakurririko ditugu. Gotzonek esandakoak berriko ditugu, hark idatzitakoak gogoratu. Gotzon Garateren omenezko hitzaldi-irakurketa egingo dugu, maitasunez, esker onez."

Miel Anjel Elustondo

Urriak 21, asteazkena 19:00 Kultur Etxean

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEN

Josu Uriarte markinarrak irabazi du San Pedron, bigarren urtez jarraian

Guztira, 35 txirrindulari lehiatu dira San Pedroko aldapetan

Eguraldi bustia eta bisutsa izan arren, jende ugari batu zen astelehenean San Pedroko igotzeran. 35 txirrindulari irten ziren, eta, iaz bezala, Josu Uriarte markinarra izan zen guztietan azkarrena. Uriartek hamabost segundu atera zizkion bigarren sailkatuari, Iñaki Ortuosteri. Triatloietan jarduna da Josu, eta sasoi onean dagoela erakutsi du. Jose Mari Fernandez elgoibartarra eta Azibar Iragagoitia mendarozarra izan ziren, hurrenez hurren, hirugarren eta laugarren.



Josu Uriarte markinarra, irabazlea.



Iñigo Ortuoste, bigarren sailkatua.



Jose Mari Fernandez 'Suso'.



Gorka Zabala maldan gora.



Mikel Lopezosa gaztea.



Parte-hartzaileak elizako arkupean.

Sailkapena

1. Josu Uriarte	14:00:00
2. Iñaki Ortuoste	14:15:00
3. J.Mari Fernandez	15:00:00
4. Azibar Iragagoitia	15:10:00
5. Mikel Lopezosa	15:16:00
6. Gorka De la Horra	15:38:00
7. Beñat Zafra	15:50:00
8. Iñaki Gorosabel	15:55:00
9. J.Juan Barrenetxea	16:20:00
10. Jorge Gonzalez	17:05:00
11. Daniel Palazin	17:12:00
12. Gorka Zabala	17:18:00
13. Imanol Cid	17:32:00
14. Mikel Hernandez	17:32:00
15. Tomas Arizaga	17:50:00
16. J.Antonio Agote	18:10:00
17. Enrike Astigarraga	18:16:00
18. Xabier Elgezua	18:20:00
19. Agustin Gomez	18:42:00
20. Iñigo Agirburualde	19:22:00
21. Igor Caballero	19:39:00
22. J.Jose Martinez	19:50:00
23. Ricardo Huidobro	19:50:00
24. Gotzon Arrieta	19:50:00
25. Julen Agirburualde	20:22:00
26. Iker Amutxastegi	20:33:00
27. Beñat Fernandez	21:37:00
28. Fabian Castro	21:48:00
29. Josen Gurrutxaga	22:02:00
30. Mario Romero	23:20:00
31. Jokin Bergara	24:28:00
32. Orkatz Amutxastegi	24:35:00
33. Anton Mendizabal	25:50:00
34. Alberto Matute	26:55:00
35. Oscar de Diego	26:55:00

Sarituak

Kadeteak. Igor Caballero	19:39:00
Jubenilak. Mikel Lopezosa	15:16:00
23 urtez azpikoak: Mikel Hernandez	17:32:00
Master 23-35: Josu Uriarte	14:00:00
Beteranoak A: Iñigo Ortuoste	14:15:00
Beteranoak B: J. M. Fernandez	15:00:00



Antxintxika egiteko ibilbide berria egingo du Udalak Mintxeta inguruan

Zirkuitu berriak 1.150 metroko luzera izango du

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari esker, antxintxika egiteko zirkuitu berria egingo du Udalak Mintxetako estadioaren inguruan. Hitzarmenaren arabera, Elgoibarko Udalak datozen bi urteetan 200.000 euro jasoko ditu (100.000 euro urte bakoitzean) korrika egiteko ibilbidea eraikitzeko. Ibilbide berriak 1.150 metroko luzera edukiko du, eta Juan Mugerza krosaren ibilbidea errespetatuko du. Zati batzuetan, elkarren paralelo egongo dira biak. Bestalde, oraindik zehaztu gabe dago ibilbideak izango duen zoru mota. Hori bai, behar bereziak dituzten kirolarientzako prestatuko dute. Besteak beste, harmailen atzean dagoen bide zatiko aldapa xamurtuko dute, eta orain %15eko portzentajea duen malda %8ra jaitsiko dute. Zirkuitu



Arg.: Manu Sanchez

guztia kirol instalakuntzen kanpoko aldetik eraikiko dute, eta futbol zelaia eta igerilekuak inguratuko ditu.

Denboraldi amaierarako irteera eta bazkaria antolatu ditu Mendaroko Txirrindulari Taldeak

Txirrindulari denboraldiari amaiera emateko hainbat ekitaldi antolatu ditu Mendaroko Txirrindulari Taldeak urriaren 24rako. 10:00etan zikloturisten irteera izango da, eta eguerdiko 14:00etan bazkaria egingo dute Landa erretegiaren. Bazkariara joateko interesa dutenek mte.mendaro@hotmail.com helbidera idatzi dezakete, edo Landa eta Txirristaka tabernetan eman dezakete izena urriaren 21erako.

45 lagun izan dira Morkaikorekin Pirinioetan



Morkaiko mendizale elkar-
teak antolatuta, hiru egun pasatu dituzte 45 lagunek Pirinioetan. Zapatu goizean irten ziren Elgoibartik, eta astelehen gauetan itzuli ziren. Estoseko haranean ibili dira, Benasque inguruan. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, gustura ibili dira. Besteak bestea, Pico de Veteranos mendi ezaguna igo zuten taldeko kide batzuk.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **0** – Beasain **1** (3. maila)
Lazkao **1** – Elgoibar **2** (Erreg.)
Elgoibar **2** – Mondragon **1** (Jub.)
Elgoibar **1** – Urki **0** (Kad. A.)
Ikasberri **0** – Elgoibar **5** (Kad. B.)
Aloña Mendi **2** – Elgoibar **0** (Inf.)
Elgoibar **6** – Lagun Onak **2** (Txiki)
Eibar **2** – Elgoibar **0** (Nesk.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak **22** – Oiarpe **16** (2. maila nag.)
Lagunak **22** – Usurbil **14** (1. maila nag.)
Eibar **20** – Lagunak **22** (3. maila nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createx **2** – Elorrioko Buskantza **2**

ESKUBALOIA

Basauri **14** – Grupo Eibar (Elg.) **21** (Jub. nesk.)
Basauri **17** – IMH **11** (Kad. nesk.)
Alkorta Forging **27** – Egia **27** (Sen. mut.)
Urola **14** – Lauko **25** (Kad. nesk.)
Pneumax **13** – Aloña Mendi **31** (Kad. mut.)
Egia **31** – Pneumax **26** (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

11:00 Elgoibar – Lagun Onak (Kad. B.)
12:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Nesk.)
16:30 Haundi – Baskonia (3. maila.)
18:30 Elgoibar – Urola (Erreg.)

Domeka, 18

12:00 Elgoibar – Urola (Txiki.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 17

11:00 Bankoa Elg. – Pulpo Zumaia (Inf. mut.)
12:30 Aterpe Elg. – Casa Astigarraga Elg. (Inf. nesk.)
16:00 Beristain Elg. – Hondarribia (Jub. mut.)
17:30 Grupo Eibar Elg. – Zarautz (Jub. nesk.)
19:00 IMH – Zarautz (Kad. nesk.)

Domeka, 18

10:00 Lauko Elg. – Pulpo B Zumaia (Kad. nesk.)
11:30 Pneumax – La Bakaladera Irun (Kad. mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barxakua, 16

22:00 Lagunak – Añorga (2. maila jub.)
22:00 Lagunak – Bergara (2. maila nag.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lan bila. Nagusiak eta haurrak zaintzen, eta parkinson gaixotasuna duten pertsonekin esperientzia dauka.
☎ **679 317 981**
- Neska gaztea etxeko lanak egiteko, haurrak zaintzeko edo dendari lanetarako prest. Esperientziaduna.
☎ **943 254 398**
- Emakumea sukaldari laguntzaile lanetarako, gauez pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest.
☎ **645 461 600**
- Emakumea haurrak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **648 603 029**
- Neska arduratsua etxeko lanetarako eta zaintzaile lanetarako prest. Esperientziaduna.
☎ **663 786 976**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- Mendaron pisua konpartitzeko emakumea behar da. ☎ **636 523 507**
- Emakumea, pisua konpartitzeko logela bilatzen ari da. ☎ **616 288 897**
- Zaldibar eta Durango aldean alokairuko etxebizitza bila nabil. ☎ **667 317 399**
- Bi logelako etxebizitza alokatu nahiko nuke Elgoibarren. ☎ **943 530 266**
- Pisua konpartitzen da. Erdigunean.
☎ **655 742 053**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Mercedes Vito furgoneta prestatuta saltzen da. Aukera ona. ITV-a pasata.
☎ **652 727 631**

- Garajea salgai, San Roken. 2-10 zenbakidun portaletako 60. zenbakia.
☎ **676 719 705**

BESTELAKOAK

- Katua oparitzen da, persa arrazakoa, grisa, lau urte ditu. Bakuna guztiekin.
☎ **650 854 715**
- "Tolvarina" markako trikitixasaltzen da. 4 ahotsetakoa. Beltza. 1.400 euro.
☎ **688 676 507**
- Gotzon Garateren omenaldian aterki bat ahaztu zitzaigun Musika Eskolan. Norbaitek aurkitubadu, deitu dezala.
☎ **943 741 531**
- Etxez etxe ordenagailuak konpontzen ditut. Prezio onean.
☎ **630 580 390**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Iraileko irabazlea:
INMA VARAS

Urriako saria:
**BETILETAKO TINTEA
ETA PERMANENTEA
+
PEDIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Jarri ezazu zure publizitatea



B

BARREN
astekarian
943 743 704



• Zorionak, **Aitor**, zapatuan 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Jone Alberdi**, 5 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Xalao!** Atzo 1 eta gaur 2! Muxu handi bat Maddi eta etxekoen partez,



• Zorionak, **Egoitz**, zure 11. urtebetetzean. Etxekoen, eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak, **Nora**, domekan 5 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Garazi**, 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta ahizpa Irunereren partez.



• Zorionak, **Nahia**, asteartean 8 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Sara**, bihar 15 urte egingo dituzulako. Muxu asko aitita eta Loliren partez.



• Zorionak, **Maria**, familiakoen eta bereziki, neba Julen eta lehengusu Anderren partez.



• Zorionak, **Maitane**, zure 11. urtebetetzean. Familiakoen, eta, ahizpa Maialeonen partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Trini**, hilaren 18an 85 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak gure rubixuari, domekan 7 urte beteko dituelako. Pa handi bat etxeko denon partez!



• Zorionak, **Oier Arriola**, zure bederatzigarren urtebetetzean eta patxo handi bat Xabierren partez.

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

18 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 16 Etxeberria (Santa Ana)
- 17 Fernandez
Goizez, Etxeberria (Errosario)
- 18 Fernandez
Zabaleta
- 19 Yudego
- 20 Yudego
- 21 Etxeberria (Errosario)
- 22 Ibañez
- 23 Garitaonandia

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



16 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa
Elgoibarko Izarrak antolatuta,
2tik 6 urtera arteko umeentzako
eta euren gurasoentzako
programa. Plaza Handian.

Antzerkia

22:15 'Mundo y final'
Ron Lalá konpainiak aurkeztuko
du. Herriko Antzokian.

17 zapatua

Manifestazioa

15:00 AHTren kontrako
manifestaziorako autobusa
Baionan egingo den
manifestaziora joateko autobusa
antolatuta du AHT Ez Elgoibar
taldeak. King-Kongeko autobus
geltokian.

21 eguaztena

Hitzadia

19:00 'Eskerrik asko, Gotzon.
Gotzon Garate, bidegile'
Gotzon Garateren omenez an-
tolatutako hitzaldi zikloko lehe-
nengoia izango da. Hizlaria Miel
Anjel Elustondo izango da. Kul-
tur Etxeko hitzaldi gelan.

22 eguena

Mintegia

9:00 30+10 mintegia
Enpresetako hizkuntza kudea-
ketari buruzko mintegia izango
da, IMHn.

Ipuin kontalaria

17:00 Ahozko tradiziozko
zenbait ipuin
Kutxaren Gizarte Ekintzak anto-
latuta, Udal Liburutegian.

23 barixakua

Mahaingurua

19:30 Baserritar gazteen
esperientzien elkartrukea
Akiulu taldeak antolatuta, Base-
rritar Gazteen Martxa helduko
da Elgoibarrera 19:00etan, eta
ondoren, mahaingurua egingo
dute, Kultur Etxean.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 16
Kanpo jolasak 17:00

ZAPATUA 17
Ping pong txapelketa 17:00

DOMEKA 18
Zinema 17:00

MARTITZENA 20
Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 21
Txoko pribatua 17:00

EGUENA 22
Sukalde tailerra 17:00

LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 16
Magia emanaldia 17:30

ASTELEHENA 19
Rock band 17:30

MARTITZENA 20
Antzerki txokoaren dinamizazioa 16:30

EGUAZTENA 21
Plastilina 17:30

EGUENA 22
Eskulanak 17:30

«La proposición»
16, barixakua: 22:15
17, zapatua: 19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Anne Fletcher. Estatu Ba-
tuak, 2009. Iraupena: 107 minutu. Akto-
reak: Sandra Bullock, Ryan Reynolds,
Malin Akerman. Margaret liburu editorea
Kanadara deportatzeko arriskuan dago,
bere jaioterrira. Hori dela eta, azken ha-
mar urteotan oso gaizki tratatu duen bere
laguntzailearekin ezkontzekotan dela
esango du. Laguntzailea jokoan onartuko
du, baina bere baldintzak ipiniko ditu.



Gure gomendioa

Baserritar Gazteen Martxa

Urriak 23, barixakua, 19:00etan

Akulu taldeak deituta, urriaren 23an iritsiko da Baserritar Gazteen Martxa Elgoibarrera. Azkarate gaina pasata, 19:00ak inguruan, traktore baten atzetik sartuko da martxa gure herrian. Ondoren, baserritar gazteen esperientziak elkartrukatzeko maingurua egingo dute Kultur Etxean. Hurrengo egunean, Eibar alderantz abiatuko da martxa, eta urriaren 25ean amaituko da Durangon.

BASERRITAR GAZTEEN MARTXA 09
AZPEITIA-DURANGO
URRIAK 23.24.25



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Zerikasi

IKASTAROAK

Internet + e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelera
Hasiera data: 2009-10-19
Non: Elgoibarren
Izen-ematea: Kontsultatu (943 748 828)

Argazkilaritza digitala

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gaztelera
Hasiera data: 2009-10-19
Non: Eibarren
Izen-emate bukaera: Kontsultatu

Irakurketa sustatzeko egitasmoa

Norentzat: 2005ean jaiotako umeen familiakoentzat
Hizkuntza: Gaztelera
Hasiera data: 2009-10-20
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 708 437 (Eva Alberdi)

Sutan egindako esmalte ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gaztelerez
Hasiera data: 2009-10-26
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 740 844 (18:00etatik 20:00etara)

Adimen emozionala kontrolatzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelera
Hasiera data: 2009-12-03
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«El cumpleaños de Laila»
(Ongarri zine-kluba)

22, eguena: 21:30

«Harry Potter y el misterio del principe»

18, domeka: 16:00

Harry Potter. Erresuma Batua, 2009. Zuz.: David Yates. Akt.: Daniel Radcliffe, Emma Watson, Jim Broadbent. 153 min.

16 urte bete ditu Harry Potterrek,

eta seigarren ikasturtea hasi du Hogwartsen. Dumbledorrek badaki profetia betetzear dela, hau da, Harry eta Voldemorten arteko borroka helduko dela.

Erretratu zaharra



1993

Aste honetako erretratu zaharra Maria Jesus Kortaberriak, Untzon tabernako jabeak, ekarri du BARREnera. 1993ko sanbartolomeetan ateratako erretratua da, eta bertan azaltzen direnak Untzon tabernako zerbitzariak dira. Errosario kalean zegoen Untzon taberna, eta herrian oso ezaguna zen. 1994an itxi zen taberna. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkian azaltzen diren zerbitzariak:

Ezkerretik eskumara: Be-goña Arizmendi, Mertxe Etxeberria, Amaia Ansola, Candi (azkoitiarra), Isabel Ansola (†), Maite Barrenola, Juanita Barua, Maria Jesus Kortaberria eta Asun Agirre "Oleta".

Gure berbak

Hiztegia: animalixen izenak (3)

Hona, gaurkuan ere, animalixen berba gehixago:

- ◆ **HAR, harra:** "Gusano".
- ◆ **HARKO, harkua:** Frutaren harra. *Sagararren harkua*.
- ◆ **HEGABERA, hegaberia:** "Avefria".
- ◆ **HONTZ ZURI, hontz zurixa:** "Lechuza".
- ◆ **IPURTARGI, ipurtargixa:** "Luciérnaga".
- ◆ **ITSAS-ANTZAR, itxas-antzarra:** "Ganso".
- ◆ **ITZAIÑ, itzaiña:** Izaina, "sangüjuela".
- ◆ **KAIXO, kaixua:** "Gaviota". **Kaixo haundixa** eta **Kaixo txikixa** izaten dira.
- ◆ **KALANDRES, kalandresa:** "Alondra", "celandria".
- ◆ **KANARIXO, kanarixua:** "Canario".
- ◆ **KANGREJO, kangrejua:** "Cangrejo de río".
- ◆ **KAPOIA, kapoia:** Irendutako oilaskoa.
- ◆ **KARAKOL, karakola:** Barraskiloa. **Marraskillo** ere bai, nahiz gaur egungo adinekoen artean **karakol** izan nagusi.
- ◆ **KARRAZTARRO, karraztarua:** "Zorzal".
- ◆ **KATAGORRI, katagorrixa:** Urtxintxa gorri-ka. Ikus **Katamixar** sarrera.
- ◆ **KATAKI, katakixa:** "Golondrina".
- ◆ **KATAMIXAR, katamixarra:** Urtxintxa hauts-kolorekoa, nabarra. Gorri-ka denari Katagorri esaten zaio.
- ◆ **KATANAR, katanarra:** Txori txikia, "Trepador azul".
- ◆ **KATAPARDO, katapardua:** "Jineta".
- ◆ **KAZA-TXAKUR, kaza-txakurra:** Txakur ehiztaria.
- ◆ **KILKER, kilkerra:** "Grillo".
- ◆ **KIRIKIXO, kirikixua:** Trikua. Hitzun zaharrenek darabilte batez ere. Gazteagoek **trikua** darabilte. *En jeneral, guk, lehen aitxa zanak eta kirikixua esaten ziuén, baiña bixak, kirikixua eta trikua. Nik, bixetara.*
- ◆ **KONEJO, konejua:** Untxia.
- ◆ **KORROKOI, korrokoa:** Itsasadarretan ibiltzen den arraina, jateko ia batere estimatzen ez dena. *Altzolaraiño sartze'ittuk oiñ korrokoia.*

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

PEDRO GABILONDO ELCORO-IRIBE

2009ko urriaren 7an hil zen Gasteizen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez .

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping

neuromuskularra", lehiaketa

bendajea.) San Frantzisko kalea,

40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@informed.es

Betia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Orduetgia:

9:30-13:30

15:30-19:30





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
giltzak@giltzak.com